

20

22



Programazioa
MUSIKA

Programazioa MUSIKA

2022ak egoera berria ekarri zuen musika-programazioari dagokionez, eta erronka kitzikagarria ikus-entzuleak berriro erakartzearen aldetik.

Batetik, sumatzen zen *normaltasuna*. Gauza asko airean bazeuden ere, mundu guztiak ematen zuen ziurtzat bazetorrela.

Bestetik, *normaltasun* horrek galdera asko eragiten zituen. Musika, gertaera global eta agerpen publiko den aldetik, osasun-baldintzen, lekualdatzeko gaitasunaren, gorabehera ekonomikoen, ikus-entzuleen gustuen eta egungo joeren mende dago.

Gauzak bere onera etortze horretan, faktore garrantzitsuenetako bat hau izan zen: pixkanaka irekiz joan zirela ikus-entzuleentzako aretoak, leku jakin batean egon beharrik gabe eta zutik egoteko moduko kontzertu programatueterako.

Donostia Kulturako antzokiek, pandemiak iraun bitartean, eutsi egin zioten musika-jarduerari eta eskaintzari, jendea zutik egon zitekeen beste lekuri ez zegoelako. Egoera hori aldatuz joan zen 2022an, eta kontzertuak berriro egin ziren areto egokienetan. Ikus-entzuleak aretoetara itzuli ahal izan ziren musika zutik entzuteko, eta berriro programatu ahal izan ziren halako aretoetarako moduko proposamenak.

Antzokiek, beraz, berriro eskaini zuten zegokien musika beren egunetan.

2022an berriro hasi ziren, orobat, nazioarteko birak, motel samar ekin bazioten ere. Bertako sortzaileek berriro aurkitu zuten kanpokoan lehia aurrez aurre. Ikus-entzuleak piztu egin ziren musika-eskaintza zabaldu zenean.

Baina, hala eta guztiz ere, aretoak ez ziren osorik bete berriro. Artean, araudiaren oztoporik gabe ere, bazen halako errezelo bat areto publikoetan bata bestearen ondoko eserlekuan jartzeko, eta bazirudien hara joateko osasunaren segurtasun-berme handiagoa behar zela, bat-batean deklaraturakoa baino.



Joseba Tapia, Adarra Saria



Ruper Ordorika



Gure Ahotsak, Ainara LeGardon © Rafa Rodrigo

Hori dela-eta, musika-programazioak, lekualdaketei eta edukiei jarritako mugen azken aztarnez harago, gorabehera handiak izan zituen harreraren aldetik, ikus-entzuleak arte-ekitaldi aurrez aurreko batera berriro etortzen hasi zirenean.

Musika klasikoko zikloei dagokienez, **Donostia Musikak (Sorozabalen urtea)**, **Baturak** eta **EGOk** modu bikainean sartu ziren berriz ere **Victoria Eugenia Antzokiko** programazioan, non arreta berezia eskaini baitzitzaizen ganbera-musikari, interprete gazteei eta euskal autoreen konposizioei. Orobat, musika garaikidearen arloan, aipatu beharra dago Parisko **Ensemble Intercontemporain**en kontzertua, non, besteak beste, Lazkanoren lan bat jo baitzuten.

Bertako artista popularren sorkuntzak ere leku zabala izan zuen: **Idoia**, **Ruper Ordorika**, **Mikel Urdangarin**, **Jon Maia**, **Gure Ahotsak** (bosgarren edizioa), **Elena Setién**, **Juanmari Beltrán**, **Ansorena & Senperena**, **Álex Ubago**, **Mursego** eta **Joseba Tapia** (**Adarra Saria** jasotzeko).



Mursego



Ensemble Siciliano, Kyril_Zlotnikov

Kanpokoan artean, berriz, **Maika Makovski**, **José Gonzalez**, **Dorian Wood**, **Julieta Benegas**, **Depedro**, **James Rhodes**, **Guitarricadelafuente**, **Federico Albanese**, **Eliades Ochoa**, **Ismael Serrano** eta **Sivia Pérez Cruz**.

Jazza ere, **Jazzaldiaz** eta beraren aurreko **Bertako Taldeen** zikloaz gainera, oso presente izan genuen programazioan: Gaur egungo jazzaren ordezkari ezin nabarmenagoak izan ziren **Le Nuvole de Pier Paolo**, Italiako Kultura Institutuak babestua, **Immanuel Wilkins Quartet**, **Jerry Bergonzi**, **Liebman**, **Brecker**, **Copland Quintet**, **Sex Mob** eta **Tribute To Lee Morgan**, **Vincent Herringekin**.

Azkenik, gogoratzea komeni da Victoria Eugenia Antzokiak opera bat eta bi zartzuela eskaini zituela, arrakasta handiz eskaini ere: **Dido & Eneas**, **Don Manolito** eta **Adiós a la Bohemia**.



Ismael Serrano



James Rhodes



Guitarrica de la Fuente

90 ikuskizun izan ziren, eta 25.990 ikus-entzule guztira.



Jose Gonzalez by Peter Toggeth & Mikel Cee Karlsson



Dorian Wood & Carmina Escobar